

## **BALIO PROPOSAMENA**

Ikastetxe askotan, zenbait irakasle oso zorrotzak izaten dira azterketetan erabili beharreko materialarekin, eta askotan soilik boligrafoa edukitzen uzten dute.

Ikasleak noski horren kexu dira, gehienetan akats ugari egiten dituztelako, izan akats ortografiko zein eragiketa akatsak. Horregatik, iruditzen zaigu egokia izango litzatekeela ikasleon artean oso erabilgarriak diren 2 material elkartzea eta produktu bakarra sortzea. Horretarako ikasleok gehien erabiltzen ditugun materialak aztertu ditugu eta ohartu gara, boligrafo urdina eta tippexa direla gehien erabiltzen direnak.

Boligrafo urdina; azterketa gehienetan idazteko erabiltzen delako eta irakasleek ere gehienetan boligrafo urdinez idazteko eskatzen dutelako eta ezabaezina denez tippexa erabiltzen da zerbait gaizki eginez gero, beraz biak beharrezkoak dira bata bestearentzat. Horretarako, produktu bat sortuko dugu boligrafo urdina eta tippexa elkartuz, *Boliti* izenekoa. Idazteko punta boligrafo estandarrarena izango du eta makila ere, baina makilaren bukaeran tippexa edukiko du horrela *Boliti* duzun momentuan idatzi eta ezaba daitezke gauzak.

Produktu hau berria izango da herri mailan, izan ere, produktua berez existitzen da baina bere eskera internet bidez egin behar da eta guk herri mailara eraman nahi dugu.

